

Andrei Zvyagintsev: boterearen jokoa Leviatan filmean, Thomas Hobbesen eta Joben Liburuaren oinarrietatik

Urcola Eceiza, Eider

Euskal Herriko Unibertsitatea
eiderurkola@gmail.com

Laburpena

Andrei Zvyagintsev errusiar “Olatu Berriko” zinearen ikurrik garrantzitsua da. Zuzendari txalotuaren laugarren filma da Leviatan (Zvyagintsev, 2014). Filma errusiar gizartearen eta sistema politikoaren alegoria bat da. Hau da, gizartearen ispilu bat. Kolyaren istori simplea erabiliz, Errusiaren ustelkeriaren eta boterearen erabilera azaltzen du. Filmak horretako bi oinarri ditu: Thomas Hobbesen Leviatan liburua eta Bibliako Joben Liburua. Boteredun figuraren eta gerra-egoeraren kontzeptuek zer esan handi dute film honetan.

Hitz gakoak: Zvyagintsev; zinea; Errusia

Abstract

Andrey Zvyagintsev is one of the most important symbols of the "New Wave" of the Russian cinema. Leviatan is the fourth film of the renowned director (Zvyagintsev, 2014). This movie is an allegory of the current Russian society and its political system. Using the simple story of Kolya, Zvyagintsev explains the Russian corruption and the use of the power. The movie has two important references: Thomas Hobbes book Leviatan and the Biblical story of "the book of Job". The presence of a powerful figure and the state of nature are two important concepts which are present in the movie.

Keywords: Zvyagintsev; cinema; Russia

1. Sarrera eta motibazioa

Andrei Zvyagintsev errusiar zinemaren olatu berriko erreferente nagusia da. Andrei Tarkovski errusiar zine zuzendariarekin parekatu dute (Cabart, 2003; Fătu-Tutoveanu, 2003). Hainbat sari ditu esku artean: Veneziako Urrezko Lehoia (2003), Canneseko gidoirik hoberenaren saria (2014), Canneseko epailearen saria (2017), Errusiako NIKA saria (2004) zuzendaririk hoberenari izendapena eta hainbat aldiz izan da Oscar sarietara izendatua, beste sari askoren artean (IMBd,-). Hala ere, egungo zine zuzendaririk garrantzitsuenetarikoa bat bada ere, ez dago akademian bere inguruko lan gehiegi. Artikulu solte batzuk daude, baina lan sakonik ez dago eta ondorioz, zuzendariaren inguruko analisi sakon eta osatu baten premia dago.

Bost luze-metrailen sortzaile, aipagarria da mundua ikusteko eta ulertarazteko duen begirada poetikoa; koherentzia mantenduz maila narratibotik hasi eta formaraino, zigilu pertsonala sortuz. Filmak errusiar gizartearen irakurketa alegorikoak dira, istorio partikularrak erabiliz gizartearen egoera marrazteko. Baina hori baino haratago doa Zvyagintsev, galdera eta dilema etikoak ere pantailaratzen baititu dotoreziaz: gizentasuna, giza natura edota giza erantzukizuna besteak beste.

Leviatan filma zuzendariaren lanik sarituenetarikoa eta ospetsuenetarikoa da. Hainbat irakurketa eta eztabaida sortu ditu urte hauetan zehar (Kondyuk, 2016; Vassilieva, 2018; Dink, 2014). Errusian arazoak izan zituen zuzendariak zentsurarekin film hau erakusteko garaian. Errusiar Gobernuak emandako diru laguntzekin egin bazen ere, emaitza ez zen agintarien gustukoa izan (Bonet, 2015; Koch, 2014). Filmak

familia baten istorio gogor bat kontatzen du, baina atzean sustrai sakonagoak dituen filma da, arazo politikoetan murgilduz. Berezik, boterearen erabileraz eta ustelkeriaz hitz egiten du filmak, herri txikian ikusten den jokia, egungo egoerara estrapolatu daiteke.

2. Ikerketaren helburuak eta arloaren egoera

Andrei Zvyagintseven filmografiaren inguruan ez da gehiegi idatzi. Gainera, ikertu den gutxi horri ikuspuntu orokorra falta zaio: zine zuzendariaren lana borobilduko duen ikerketa. Zuzendariak izaera artistiko pertsonala adierazi baitu bere filmografia osoan zehar, zigilu poetiko pertsonal bat sortuz. Gainera, bere lanek Errusiar gizartearen irakurketa alegorikoa bultzatzen dute, eta hemen ere sakondu beharra dago.

Artikulu honetan bi helburu finkatu dira:

Lehenengo helburua, Andrei Zvyagintseven Leviatan filmaren oinarrian dauden ideiak azaltzea da. Leviatan izenburuak dituen erreferentzia erlijiosoak eta politikoa azaltzea hauek filmarekin duten lotura erakutsiz. Zehazki, erlijioan, Leviatan munstroaren adierazpenak labur azaltzea, eta bereziki Joben Liburuarekin Leviatan filmak dituen antzekotasunak islatzea. Politikan berriz, filmak Thomas Hobbesen Leviatanaren ideiekin dituen antzekotasunak azaltzea.

Bigarren helburua, Leviatan filma hartuz, Andrei Zvyagintsevek irakurketa alegorikoa nola egiten duen aztertzea, hau da, Zvyagintsevek istorio partikularrak erabiliz nola egungo Errusiar politikaren egoera azaltzen duen aztertzea.

3. Ikerketaren muina

Kolya Errusia iparraldeko herri txiki batean bizi den gizona da, bere semearekin (Roma) eta emaztearekin (Lilya). Herriko alkateak, Vadim, eta apezpiku nagusiak Kolyaren etxeko lurretan Eliza bat eraiki nahi dute. Alkateak lurak lortzeko ahaleginak egin arren, Kolyak ez du etsitzen eta bere lagun abokatu Dimitriri deituko dio laguntza eske. Baina Dimitrik ere ezer gutxi egin dezake sistema ustelduaren aurrean. Azkenean, alkateak eta apezpikuak Kolyaren etxea eta lurak lortuko dituzte, eta Kolya kartzelaratua izango da egin ez duen delitu batengatik.

Leviatan filma Zvyagintseven filmografian zer esan gehien izan duen filma izan da. Filmaren oinarrian ideia sakonak eta landuak daude, ez da gizon baten istorio hutsa. Sakontasun hori izenburutik hasten da. Izenburua erreparatuz gero, filmak hainbat erreferentzi dituela ohar gaitezke. Bi taldetan banatzen dira erreferentzi hauek: erreferentzia erlijiosoak eta erreferentzia politikoak.

Erreferentzi erlijiosoetatik begira, Leviatana garrantzitsua da gizakion erlijio-historian zehar. Aintzinako lehen zibilizazioetan jada aipatzen zen Jainkotasun izaera zuen itsas-munstroa. Babiloniako sorkuntza mitoan adibidez, Marduk (Jainko nagusiak) Tiamat Jainko sugea garaitu zuen, zeinak itsas-dagroi baten forma hartu zuen borrokan zehar. Munstroa hil ostean, bere gorputza erabili zen lurra eta zerua sortzeko. Tiamatek lehen sorkuntza aurreko kaosa sinbolizatzen du. Kaosa ikusten dugu filmeko herri txikian, ustelkeriak usteldu duena (Campbell, s.f:1-2).

Hala ere, munstroak Jainkotasun izatea galduz joan zen gizarte politeistak izatetik gizarte monotelistak izatera igaro zirenean denboraren joanean. Jainko botere ahaldu guztia pertsona batengan zentratzen joan zen eta gainontzeko izaki jainkotiarak indarra galduz joan ziren (Campbell, s.f:3).

Juduentzat aipamen garrantzitsuena Misdrash testuan ageri da. Leviatan munstroa emakume baten zatitik sortu zela diote, baina Jainkoak hil egin zuen munstroa ez zezan mundua suntsitu. Munstroaren haragia zintzoenei jaten emango zaiela uste dute Juduek. Horretaz gain, Halakhah testuan dio Leviatanak balea bat jaten duela egunean (Campbell, s.f:3).

Juduen ikuspuntuan oinarri hartuz, hondartzako balea munstroak jandako balea baten hondakinak dira. Munstroa badago hor nonbait, itsasoan gordea. Edo jada hezurak baino ez daudela kontuan hartuta, zintzoei jada eman zaie munstroaren haragia, eta hondartzan hezurak baino ez dira gelditu.

Kristautasunean aldiz hainbat forma hartzen ditu munstro honek, Beckingek honela laburtzen du munstroaren agerpena Kristautasunean (Beckering, 2018:2):

Leviathan occurs six times: twice in the Psalms, twice in the Book of Job, and twice in the prophecies of Isaiah. Remarkably, the fabulous creature is only attested in poetic texts and never in a narrative context. The image of Leviathan as well as the symbolic meaning of the mythological animal is not constant or equal in the six passages. An unequivocal picture of the Biblical Leviathan cannot be drawn. Sometimes, he is a snake, sometimes a crocodile of gigantic proportions, and sometimes a dragon of the sea. It is intriguing to see that this multifaceted image of Leviathan has implications for the reception of the animal throughout history. At the various stages of human history, the monster plays a different role.

Hala eta guztiz ere, Kristautasunean “Joben Liburua”-aren narrazioa azpimarratu behar da. Filmak bai baititu munstroa baino haratago doazen antzekotasunak. Batetik, istorioa bera: Job gizon arrunt eta langile bat zen. Baina Satanasek jarritako probak gainditu behar izan zituen Jainkoaren aurrean bere fedea defendatzeko (Joben liburua¹). Kolya gizon arrunt eta langile bat da. Alkateak eta apezpikuak jarritako oztopoak gainditu behar ditu Justizia egiteko eta berea dena defendatzeko. Bi pertsonaiak gizon langileak eta onak dira, benetan sinesten duten hori gogor defendatuz (Mason eta Foster, 2015). Kolyak bere arbasoen etxea defendatu nahi du, aberria, Errusiar herriaren sustraiak. Hondartzan ageri diren hezurak Kolyak aurre egin behar dion Leviatanaren sinbolo dira, munstro boteretsu bat.

Andrei Zvyagintseven filmean erreparatuz, munstroaren sinbolismoak zer esan handia du. Hori dela eta, Zvyagintsevek balea bat grabatzen du itsasoan eta baita balearen hezurak hondartzan. Munstroaren presentzia indartuz. Leviatana beti lotu izan baita balearen itxurarekin eta handitasunarekin.

Leviatanaren erreferentzi politikoei begira aldiz, bakarra nabarmendu behar dugu: Hobbesen Leviatana. Bi ideia azpimarratzen dira filmean. Batetik, botere absolutuaren figura, eta bestetik gerra-egoera. Lehenik, kontuan izan behar dugu, Hobbesentzat, Leviatana, boterearen adierazpena dela, Cardona Restrepok artikuluan azaltzen duen modura:

En el Leviatán, dice Hobbes, radica la esencia del Estado y allí una persona se encargará de concentrar el poder. Esta persona no es más que el Soberano, pues en él se encarna el Estado; y cada uno de los individuos le debe respeto y sumisión en calidad de súbdito. Este soberano es un legislador, él hace las leyes y las interpreta, por tal razón nadie puede derogarlas (Cardona Restrepo, 2008).

Subiranoaren figura absolutua alkatearen eta apezpikuaren irudia da, zeinak botere eta ahalmen guztiak dituen, legeak egin eta interpretatu. Kolya herria da, subiranoak errespetatu beharko lukeena, eskubide guztiak eman baitizkio bakearen alde. Vadimek sistema politiko usteldu bat kontrolatzen du, trafiko poliziatik hasi, eta epaileetara. Guztiak ditu bere menpe, eta gainera, sistemaren zuloak ditu lagun. Adibidez, burokrazia. Alkatearen helburua, apezpikuarekin batera Eliza eder eta handi bat eraikitzea da Kolyaren etxea dagoen lurretan. Horretarako, egin behar den guztia egiteko prest daude. Gainera, behin eta berriro argi utziko du filmean, berarentzat Kolyaren egoeraren arazo bat baino ez dela, oztopo bat. Subiranoa ez da herriaz kezkatzen. Kolyari ere esango dio eszena batean: “Zizareak baino ez zarete (...) beti trabak jartzen”.

Apezpikua eta alkatea botere absolutu horren adierazleak dira. Munstro boteretsua, inor baino ahaltsuagoa dena. Aspaldi usteldu zen subiranoaren eta herriaren arteko akordioa herri txiki honetan. Eta horren erakusle da itsas-ertzean agertzen diren balearen hezurak. Akordio bat badago, baina usteldua dago jada. Horregatik, herrian sistema politiko baten arrastoak daude, baina erdi galduak.

¹ Joben Liburua: <http://antipas.net/sb/18sj.htm> web orrialdetik oinarritua

1. Irudia. Filmeko irudia, balea hezurrak, akordio politikoaren metafora.



Akordioa horren dago ustelduta, legeak ere ezer gutxi egin dezakeela. Dimitri da legearen ordezkaria, Kolyaren laguna. Abokatua da eta harremana du Moskuko ustelkeriaren aurkako departamentuko buruarekin. Baina amaiera aldera, alkateak Dimitri mehatxatuko du, eta abokatuak izuturik alde egingo du herritik, Kolya bakarrik utziz. Errusiar legea ere ez da nahikoa ustelkeria geldiarazteko.

Bigarren ideia, “tokiari” lotua doa, gerra-egoerari edo natura-egoerari. Hobbesen iritziz, akordio bat behar baitu gizakiak bakean bizitzeko, bestela, objektu baterako etengabeko desirak gizakia gerra-egoera etengabe batera bideratzen du, edozer egin baitaiteke egoera honetan. Egoera zital hau gerra-egoera modura izendatzen du Hobbek. Gizakiak beldur komun bat izan arte egoera honetan jarraituko du, kontrolik gabe elkar erasoz baliabideak lortzeko (Hobbes, 1651). Gerra egoera hau ez da biolentzia fisikoko egoera izan beharrik, Hobbesek honela definitzen du:

En una situación semejante no existe oportunidad para la industria, ya que su fruto es incierto; por consiguiente no hay cultivo de la tierra, ni navegación, ni uso de los artículos que pueden ser importados por mar, ni construcciones confortables, ni instrumentos para mover y remover las cosas que requieren mucha fuerza, ni conocimiento de la faz de la tierra, ni cómputo del tiempo, ni artes, ni letras, ni sociedad; y lo que es peor de todo, existe continuo temor y peligro de muerte violenta; y la vida del hombre es solitaria, pobre, tosca, embrutecida y breve (Hobbes, 1651).

Deskribitzen duen egoera honek, filmean ikusten dugunaren antz handia du, eta ez da kasualitatea. Mendien eta itsasoaren artean ikusten dugun herri txiki horrek pairatzen duen egoera degradantea Hobbesek definitzen duena da: ez dago biolentzia fisikorik, baina bai izua eta etengabeko mehatxua. Zvyagintsevek egoera hori adierazten duela esan genezake, gerra-egoera salatuz gaur egungo Errusian. Hau da, Zvyagintsevek nola estatu subiranoa degradatu egin den adierazten du. Akordioa usteldu da, jada ez du balio. Hobbesek gerra-egoera bere horretan ez zela existitu dio, baina bai egoera antzekoak (Hobbes, 1651), eta Zvyagintseven horrelako egoera baten erretratua eskaintzen du film honetan.

Filmeko pertsonaiak oso egoera gogorrean bizi direla ikusten dugu beraz. Baliabide gehiegirik ez dago, eta denak bihurtzen dira etsai. Kolyaren kasuan ere, egoeraren larritasuna ikusirik, elkarren etsai bihurtzen dira guztiak. Besteak beste, Kolyaren lagunak hoberenak salatzen du Kolya egin ez duen delitu batez. Beldur komuna baitute herrian, alkatearen boterearen eta apaizpikuaren boterearen itzalari. Filmeko pertsonaiak gerra-egoeran bizi dira, bake ziurrik ez dagoen egoeran zitalean. Akordio politiko bat badago, eta egon da, baina ez du bakea lortzen, apurtua dago akordioa.

Hala ere, botere gabeen egoera zitalean bada salbuespen bat, Roma, Kolyaren semea. Roma Errusiar gizartearen etorkizuna ordezkatzeko du. Mutiko gazteak gertatzen ari denari begira igarotzen du film osoa, ikuslearen antzera. Romaren jokabidea maila batean esperantzatsua dela ere esan daiteke, Romak ez baititu bere aitaren jarrera txarrak errepikatzen. Ez du edaten eta zintzo ibiltzen da. Badirudi bera dela isiltasunean egoera bortitzez ohartzen den bakarra. Hori dela eta joaten da hondartzako balearen hezurrengana negar egitera, munstroarengana, etorkizunaren negarra da egoera aldaezinaren aurrean.

Zvyagintsevek boterearen gehiegikeria eta ustelkeria lantzen ditu film honetan: errusiar sistemaren botere gehiegikeria eta sistema usteldua. Eta Thomas Hobbesen analisi politikoa erabiltzen du modu argi batean alderaketa egiteko. Botere gehiegikeria egun arazo bat da hainbat estatutan, ez Errusian bakarrik. Arazo horiek sustraieratik hasi eta azalerraino heltzen dira, eta hori erakusten du filmak. Botere gehiegikeriaren funtzionamendua eta honek sortzen dituen arazoak.

Hala ere, Kolyaren borroka gogoangarria da, horren munstro handiaren aurrean inoiz errendituko ez den pertsonaia. Errusiar herriaren arima. “Joben Liburua” borroka honetan koka dezakegu. Munstroari aurre egiteko kemenean, boterearen aurrean. Munstroan baitago film honen gakoa, hondartzan ahaztua dagoen Leviatana.

4. Ondorioak

Lehenengo ondorioa, filmak hainbat erreferentzia dituela oinarrian narrazioa eta esanahia aberastuz. Munstroaren esanahi erlijiosoak aberastu egiten du filmaren izatea.

Bigarren ondorioa, Andrei Zvyagintseven Leviatan filmaren oinarrian dagoen ideia Thomas Hobbesen Leviatan liburuan agertzen diren hainbat ideiekin bat egiten duela da. Hots, filmean Hobbesek definitzen eta deskribatzen dituen ideiak agertzen dira. Adibidez, akordio politikoarena, subiranoaren figura eta gerra-egoera. Narrazio sinple baten bidez Zvyagintsevek pantailaratu egiten ditu ideia horiek.

Hirugarren ondorioa, Zvyagintsevek boterearen erabilera marrazten du film honetan, Errusian botereak duen funtzionamendua azalduz. Bere filmografia osoa zeharkatzen duen ezaugarrietako bat da hau, baina zehazki film honetan pisu handia du. Leviatanen boterea absolutuak nola funtzionatzen duen erakusten du Errusian, eta nola sistema usteldu bat dagoen. Legeak berak ere ezer gutxi egin dezake, eta herriak are gutxiago.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Andrei Zvyagintseven inguruan burutuko den lehen tesia da etorkizuneko planteamendurik garrantzitsuenak. Bertan zuzendariak merezi duen tokia lortu dezan akademian. Zinemako zirkulurik garrantzitsuenaz gozatzen duen modura goza dezala akademian. Gainera, azken urte hauetan Errusiar zinemak izan duen gorakadarekin lotzen da autore hau. Zinemaren ikerketak aurrera jarraitzeko bideak zabalduz.

6. Erreferentziak (eta hala dagokionean nazioartekotasun aldetiko aipamena)

Becking, B. (2018). Leviathan at the Movies: Andrey Zvyagintsev's Film in Biblical Perspective. *Bible in the Arts*.

Bonet, P. (2015). ‘Leviatán’ levanta iras en Rusia. *El País*. Retrieved from https://elpais.com/internacional/2015/01/20/actualidad/1421785880_808583.htm l%0A‘Leviatán’

Cabart, A. (2013). Andrei Zvyagintsev's The Return: a Tarkovskian Initiation. *Close Up Film and Media Studies*, 1(2).

Cardona Restrepo, P.(2008), Poder político, contrato social y sociedad civil: de Hobbes a Locke, *Revista Facultad de Derecho y Ciencias Políticas*, 108, p. 123-154.

Campbell, L. (s,f). *The Leviathan: a transformacion*. Arizona State University.

Dink, L. (2014). *Andre Zvyagintsev : The Return, The Banishment, Elena. How Father Exile Their Children*. Istanbul Bilgi University.

Fătu-Tutoveanu, A. (2003). Implicit Religion and Initiation Symbolism in Zvyagintsev's Vozvarashchenie (2003). *Journal for the Study of Religions and Ideologies*, 14(42), 198–230.

Hobbes, T. (1651): *Leviatán*, Freeditorial.

IMDb.(.). *Zvyagintsev.Awards*. Retrieved from:
https://www.imdb.com/name/nm1168657/awards?ref_=nm_ql_2

Koch, T. (2014). Rusia es una simulación democrática. *El Pais*. Retrieved from
https://elpais.com/cultura/2014/12/29/actualidad/1419865748_840075.html

Kondyuk, D. (2016). Sensing and Longing for God in Andrey Zvyagintsev's The Return and Leviathan. *Religions*, 7(82), 1–16. <https://doi.org/10.3390/rel7070082>

Mason, A., & Foster, E. (2015), Analysis of Andrey Zvyagintsev's. *Stevens Institute of Technology*, 1-12.

Rodnyansky, R. & Zvyagintsev, A. (2014). *Leviathan*. Russia: Non-Stop Productions

Vassilieva, J. (2018). Russian Leviathan: Power, Landscape, Memory. *Film Critics*, 42(1).
<https://doi.org/10.3998/fc.13761232.0042.101>